


Pedagogiako Gradua

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia
Fakultatea

DONOSTIA-SAN SEBASTIAN



VI. MODULUA: PEDAGOGIA ESPARRUAK

Moduluko gida

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

AURKIBIDEA

■ VI. MODULUAN GARATU BEHARREKO GAITASUNAK	2
■ VI. MODULUKO IRAKASGAIK	2
■ VI. MODULUAREN DIZIPLINARTEKO LANA.....	3
▪ NOLA LANTZEN DA DILAN-a?	3
▪ EGIN BEHARREKO LANA.....	3
▪ EKARPENA IKASGAI EZBERDINETATIK	4
▪ EGITEKO PROZEDURA ETA EGUTEGIA	8
■ TUTORETZA	9
■ TXOSTENAREN EGITURA	9
■ EBALUAZIOA.....	10
▪ TXOSTENAREN ENTREGATZEA	10
▪ EBALUAZIO-ARAUAK.....	10
▪ EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.....	11
▪ AURKEZPENA	11

■ VI. MODULUAN GARATU BEHARREKO GAITASUNAK

VI. moduluko diziplinarteko lanaren bidez, ikaslegoak hurrengo gaitasunak garatuko ditu:

1. Praktika profesionalaren esparru ezberdinak ezagutzea, hezkuntza-proiektuak, jarduera-planak eta sareak.
2. Ikasketa-trebetasunak garatzea, praktiketako testuinguruetan txertatzeko.
3. Esku-hartzeen estrategia espezifikokoak identifikatzea.
4. Esku hartzeko esparruetan egoera espezifikokoak ebazteko erabaki arrazoituak hartzea.
5. Gizarteko testuinguru eleaniztunekin eta kultura aniztunekin lotutako pertsonekin eta taldeekin: hezkuntzako esku-hartzeak aztertzea eta planifikatzea.

Honela, lana arrakastaz burutzen duen ikaslegoak, hurrengo ikaskuntza emaitzak erdietsiko ditu:

- Praktika profesionalaren esparruak modu kritikoan eta gogoetatsuan aztertzea eta azaltzea.
- Hezkuntza-testuinguruetan erabilitako ikaskuntzako hainbat estrategia eta tresna idatziz erregistratzea.
- Txertatze profesionalaren esparruetan estrategia eta esku hartzeko plan espezifikoei buruzko txosten bat egitea.
- Hezkuntzarako aholkularitza- eta laguntza-proposamenak egitea.

■ VI. MODULUKO IRAKASGAIAK

VI. moduluaren barruan garatu beharreko diziplinarteko lanean, hurrengo irakasgaiek hartuko dute parte:

Ikasgaia	Irakaslea	Posta elektronikoa
Hezkuntza aholularitza eta laguntza	Rosa María Arburua	rosamaria.arburua@ehu.eus
Zailtasunak ikaskuntzan eta garapenean	Lorena Revuelta	lorena.revuelta@ehu.eus
Pedagogia laborala eta formakuntza enpresan	Jon Altuna Miren Aguirregoitia	jon.altuna@ehu.eus miren.aguirregoitia@ehu.eus
Hizkuntzan irakaskuntza eta ikaskuntza	Iñaki Pikabea	i.pikabea@ehu.eus
Hezkuntzako esku-hartzea testuinguru eleaniztutan	Von Berastegui	yon.berastegui@ehu.eus
Komunikazioa euskaraz: hezkuntza eta gizarte arloak	Joana Garmendia	joana.garmendia@ehu.eus
Lanbide eta lan orientazioa	Iker Pérez	iker.perez@ehu.eus
Practicum I		

■ VI. MODULUAREN DIZIPLINARTEKO LANA

○ NOLA LANTZEN DA DILANa?

VI. moduluaren diziplinarteko lana taldekako lan bat da. Lana burutzeko, ikasleek 3-4 ikasleko lantaldeak osatuko dituzte askatasunez. Lantalde bakoitzak eginiko lanaren berariazko jarraipena egingo du esleituko zaion irakasle-tutore batek. Irakasle-tutore horrek diziplinarteko lanerako argibideak emango dizkio taldeari eta lanaren jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu bere irakasgaiaren praktika orduetan nahiz tutoretzetan.

DILANerako talde-lanaren jarduera irakasgai bakoitzaren ordu kopuru osoaren % 20 izango da. Hau da, 7,5 ordu aurrez aurreko eskoletarako eta 15 ordu eskolaz kanpoko lanetarako, moduluaren irakasgai bakoitzean.

○ EGIN BEHARREKO LANA

Lanaren enuntziatua hau da:

“Practicum I irakasgaiaren esperientziatik abiatuta (esperientzia pertsonala edo/eta profesionala), sakondu nahi duzuen esparru pedagogikoa proposatu aukeratutako hautazko irakasgaien ikuspuntutik, eta zerbitzu edo zentro zehatz bat diseinatu, hain zuzen aukeratutako esparruan esku hartuko duena eta zuen ustez practicuma egiteko oso egokia dena”.

Moduluko egiteko nagusia hautatutako esparruko zerbitzu bat edo gehiago ezagutzea, ezagutza eskualdatzea eta diseinatzea da. Sintesi-lan hau Practicum I irakasgaiarekin lotuta dago; ardatz horren inguruan antolatzen dira moduluko hautazko sei irakasgaiak eta horiei buruz garatuko dute ikasleek hainbat gaitasun, hain zuzen ezagutzak eta praktika profesional pedagogikoa eskuratzeko bide emango dienak.

VI. Moduluaren Diziplinarteko Lanaren (VI. DILAN) oinarria idatzizko txosten bat egitea da; txosten hori esparru pedagogiko bati buruzko idatzi deskribatzailea eta justifikatua izango da (taldeko kide batek edo gehiagok ezagutzen dutena, gehienbat practicumetik ezagutua, baina baita esperientzia pertsonaletatik edo profesionaletatik ere). Esparru horretan, esku-hartze pedagogikoak egiten dituzten zenbait zentro edo zerbitzu deskribatuko dira, eta, ikaslearen esperientziatik, ezagutzetatik eta irakasgaien ekarpenetatik abiatuta, esparru horretan esku har dezakeen zerbitzu edo zentro baten proposamena diseinatuko da.

DILANak Practicum I irakasgaiarekin harreman estua duenez, dagokion zentroan edo erakundearen praktikak egiteko aldia hasi ondoren (5. astea), talde bakoitzak sakondu nahi duen esparru bat proposatuko du, eta ikasle bakoitzak hautatutako moduluko hautazko lau irakasgaiaren (sei irakasgaitatik) ezagutzak aplikatzen ahaleginduko da, esparruko ezagutzak sakontzeko asmoz. Lanak 5 zati izango ditu:

1. zatia: *Taldea osatzea eta esparrua zehaztea.* Hasteko, eta I. Practicum irakasgaia hasi ondoren, DILAN taldea osatuko da, eta sakondu nahi den esparru pedagogikoa proposatuko da. Taldeak 3 ikasle osatuko dituzte gehienez ere. Taldeak zehaztuko du esparrua, eta esparru horren hautaketa justifikatuko du.

2. zatia: *Zentroen eta zerbitzuen deskribapena.* Orrialde batean deskribatuko dira benetan existitzen diren (edo ezagutzen dituzten) eta hautatutako esparruarekin bat datozela uste duten 3 zentro edo zerbitzu. Talde bakoitzak egokientzat jotako eskeman aurkeztuko du informazioa.

3. zatia: *Irakasgaien ekarpenak.* Hautazko irakasgaiak martxan jarri ondoren, talde bakoitzak horien kokapenarekin koadro bat aurkeztuko du, eta irakasgai bakoitzeko orrialde bateko lan bat egingo du; orrialde horretan, irakasgai horretatik hautatuko esparrura egindako ekarpenak jasoko ditu. Irakasgaiak irakasgaia partekatzen duten taldeko ikasle guztiek egingo dute.

4. zatia: *Diseinua.* Etorkizunean pedagogoa lan testuinguruan txertatzeko aukera onenak biltzen dituela uste duten zerbitzu edo zentro pedagogiko bat diseinatuko dute, hautatutako esparruan esku hartuz. Horretarako, aurreko hiru zatietan egindako ekarpenak hartuko dira kontuan. Halaber, graduan egindako ikaskuntzak, esperientzia pertsonalak eta profesionalak eta, bereziki, hautazko irakasgaien ekarpenak hartuko dira aintzat. Zati honek 5 orri izango ditu gehienez, eta talde bakoitzak adostutako eskemaren arabera osatuko da.

5. zatia: *Sintesia.* DILAN lantzean egindako ikaskuntzen sintesia.

○ EKARPENA IKASGAI EZBERDINETATIK

DILANa egiteko lantaldea osatutakoan eta sakondu nahi den esparru pedagogikoa proposatu ondoren, irakasgai bakoitzak proposatutako gidoiari jarraituz deskribatuko da:

• Hezkuntzarako aholkularitza eta laguntza

Hezkuntzarako aholkularitza eta laguntzaren arlo kontzeptualen ekarpenei buruzko sintesi- eta gogoeta-lan bat egingo da, hautatutako esparruarekin lotuta, eta, zehazki, diseinatuko den zerbitzuarekin lotuta. Horretarako, hau proposatzen da:

- Aholkularitza-lanak barne hartzen dituen ardatzak profesionalen arteko laguntza-ardatz gisa ikustea.
- Aholkularitza-prozesuetan jarduera-estrategiak aztertzea.
- Aholkularitza- eta laguntza-lanetan garatzen diren rola ezagutzea.

Talde-lanaren bidez, honako hau egingo da:

- Zerbitzuaren garapenean aholkularitzaren eta laguntzaren ekarpenak zehaztu. Bai diseinu teorikoari dagokionez, bai egin beharreko balizko praktikei dagokienez.
- Aholkularitza-zerbitzua martxan jartzeak erakundeetan dituen ondorioak aurkeztu.
- Sortu beharreko zerbitzuan garatzeko arrakastatsuak izango direla uste dugun estrategiak proposatu.
- Proposatutako zerbitzuaren diseinu orokorrari ekarpenak sintetizatu.

• Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan

Irakasgai honen bidez irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak sakondu nahi dira, baita norbanako, talde eta erakunde mailan sor daitezkeen zailtasunak ere. Hori guztia jarduera egiten den eboluzio- eta testuinguru-ezaugarriak kontuan hartuta, eta inplikaturako irakaskuntza ikaskuntzako prozesuak optimizatzea bilatuz. Xede horrekin, honako hau egin nahi da:

- Hautatutako esparruan ezagutza teorikoak eta prozedura-ezagutzak aplikatzea.

- Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuen eta horien zailtasunen aurrean planteatutako hezkuntza-premiak eta erantzunak aztertzea.
- Jarduerak prebentzioko eta garapeneko esparruak izatea ardatz, baita irakaskuntza-ikaskuntzako egoerak optimizatzea ere.

Banakako eta taldeko gogoeta-lanaren bidez, honako hau egingo da:

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan zailtasun espezifikoak (banakakoak, taldekoak, erakundeetakoak) sortzeko probabilitate gehiago egon daitezkeen egoerak/jarduerak hautatu.
- Garapeneko eta ikaskuntzako zailtasunak antzemateko eta ebaluatzeko erabilitako prozedura zehaztu, eboluzio-etaparen eta hezkuntza mailaren arabera.
- Planteatutako irakaskuntza-ikaskuntzako zailtasunei erantzuteko prebentziorako eta esku hartzeko tresnak proposatu, jarraitu beharreko pausoak eta esperotako prozesuak zehaztuta (norbanako, talde eta erakunde maila).
- Hautatutako erakundean edo esparruan, aldi baterako eta etengabeko hezkuntza-premiei erantzutearekin lotuta hartutako akordioak jasotzen diren dokumentu edo/eta komunikazio-bide motak iradoki.

• **Pedagogia laborala eta Formakuntza Enpresan**

Irakasgai honetatik, lan munduari pedagogoen ekarpena pentsamendu eta ikuspuntua eman nahi zaio DILANi. Modu honetan, hezkuntza eta formakuntza lanerako alorretan duen garrantzia eta eragina aztertuko dugu.

Lanaren zereginetan, hurrengo informazio atalak landu eta aztertuko ditugu:

1. Hezkuntza mundua eta produkzio, enpresario eta lan munduen arteko erlazioak.
2. Gaur egun, Hezkuntza mailan dauden beharrak eta aukerak aztertu, geroko lan baten garapenerako prestatuak izateko.
3. Hezkuntza-formakuntza beharren diagnostikoa edota proiektu baten garapena.

Irakasgai honen bidez eta DILANarekin bat egiten dituzten gaiak hauek izango lirateke :

- 1) Pedagogoen lan mundua, funtzioak eta irteera profesionalen ibilbidea.
- 2) Hainbat erakunde eta enpresetan pedagogoen lan ardurak eta rolak ezagutzea eta horietan sakontzea.

Hau dela eta, interesgarria da pedagogoen lan profilaren bilakaera eta gaur egungo gizartean izan ditzaketen lan berrien aukerak jakitea. Gaur egungo hezkuntzaren beharrak aztertu eta lan munduarekin duen erlazioa ikuspegi kritiko batetik sakondu nahi da.

• **Hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza**

Irakasgai honen bidez, practicum egiteko zerbitzu edo zentro pedagogiko egokia diseinatzean, irakasgai landutako alderdi psikosoziolinguistikoak kontuan har daitezten

lortu nahi da. Zehatz-mehatz, ikasle taldeak honako alderdi hauei buruz gogoeta egin dezaten nahi da:

- Zer hizkuntza-komunitaterentzat izango da zentroa?
- Zein hizkuntzatan kudeatuko da zentroa? Zergatik?
- Zer erabaki hartu beharko luke zentroak hizkuntzen (ofizialak, ez ofizialak) ahozko eta idatzizko erabilerari dagokionez?
- Zentroko jarduerak zein hizkuntzatan egin beharko liriateke?
- Langileen artean hizkuntza-eskakizunak egongo liriateke? Zein?
- Nola komunikatuko litzateke zentroa hara joandako taldeekin zentroan erabiltzen diren hizkuntzak zein diren ez badakite?
- Egongo litzateke hizkuntzak irakasteko sistemaren bat? Baietz erantzunez gero, zer xede izango luke eta nola antolatuko litzateke?
- Egin beharko litzateke motaren bateko analisi psikolinguistikorik zentroko erabiltzaileei? Baietz erantzunez gero, zer motatakoa eta zertarako?

• Hezkuntzako esku-hartzea testuinguru eleanitzetan

Ikastetxeko errealitate linguistikoa aztertzea du helburu, ikasleen jatorri linguistikoa kontuan hartuta.

Adin desberdinetako ikasleen eta hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren inguruko hezkuntza-neurriak ikastetxeen testuinguruan.

Horrek esku hartzeko arloak oinarritzeko, aztertzeko eta arrazoitzeko premiara gidatzen gaitu, subjektua, eskola, familia eta beste testuinguru soziokultural batzuk kontuan hartuta. Horretarako, garrantzitsua da egoera desberdinak ezagutzea, hain zuzen elebitasunarekin eta eskolan integratzearekin lotutako ikaskuntzei dagokienez; baita hezkuntza eleaniztuneko eta kulturantzuneko ereduak ere, testuinguru eleaniztunean hezkuntzako esku hartzeak antolatzeko, gizarteratzearen, kalitatearen eta berdintasunaren arloko irizpideei jarraituz.

Irakasgaiaren ekarpenaren ardatz nagusia hau izango da: hezkuntzaren arloan proiektu elebidunekin/eleaniztunekin lotutako praktiken gaia. Hainbat eskola-testuingurutan hizkuntzen arlo pedagogikora aplikatutako esku hartzeko proiektuak aztertuko dira. Hizkuntzak ikasteko, Europako Erreferentzia Markoa erabiliko analisi-tresna gisa, eta ikaskuntza eta hizkuntzen erabilera sustatzen duten hezkuntza-praktikak garatzeko, berriz, esku hartzeko beste baliabide batzuk.

Taldeko lanak eta banakako gogoetak argumentuak emango dituzte arlo pedagogikoan esku hartzen duten dimentsioak ulertzeko, honako hauetatik abiatuta:

- Iturri teorikoak.
- Praktika-ereduen eta egindako analisisien deskribapena.
- Esku-hartze pedagogikorako hobetzeko proposamenak

• Lanbide eta lan orientazioa

Irakasgai honetan, eduki teorikoak eta praktikoak landuko ditugu lanbide- eta lan-orientazioaren arloan sakontzeko, lanbide-orientazioko teoriak ezagutzearen bidez; halaber, karrerarako garapena sakonduko du, eta praktikan jarriko du, analisiaren bidez, gaur egun garatzen diren orientazio profesionaleko programak (bai hezkuntza formalean bai ez-formalean garatzen direnak).

Irakasgai honek DILANari egiten dizkion ekarpenak hauek dira:

1. Ikaslea testuinguruan kokatzea lanbide- eta lan-orientazioaren arloan, programa praktikoak aztertuz.
2. DILANean garatu beharreko zerbitzua egiteko eta testuinguruan kokatzeko ezagutza teorikoak ematea.
3. Talde-lana eta "lantaldearen" kudeaketa sustatzea DILANa egitean kontuan hartu beharreko esku hartzeko oinarritzko tresna gisa.
4. DILANean garatu beharreko informazioa bilatzeko eta hautatzeko gaitasunak praktikan jartzea.

• **Pedagogiako Practicum I**

Pedagogiako Practicum I irakasgaiak ikasleen prestakuntza osoari laguntzen dio, unibertsitateko ikasketak jarduera profesionalera hurbilduz eta testuinguruan kokatutako esperientzia praktiko bat sustatuz. Praktiken bidez, ikaslea ziur asko bere jarduera profesionala izango dena hurbiltzen da, eta hasierako kontaktua egiten du. Zenbait zentrotan banaka egin beharreko praktikez gainera, taldeko lan bat egin beharko da, eta lan horretan hau egin beharko da:

- Praktiketako zentroaren testuinguru orokorra aurkeztu.
- Zentroaren xede diren esparru soziokulturala eta biztanleria mota identifikatu.
- Programa diseinatu; helburuak, lanen arduraldia eta funtzioak barne hartuta.
- Langileen erantzukizun mailak zehaztu.
- Zentroko premiak identifikatu: metodologia, estrategiak eta baliabideak.
- Programaren ebaluazio-plana diseinatu.

o EGITEKO PROZEDURA ETA EGUTEGIA

DILANerako lantaldea osatu ondoren, taldeak arlo pedagogiko bat hautatuko du; ondoren, arlo hori deskribatu eta aztertu egingo du, eta proposamen bat egingo du. Azterketa-deskribapenaren eta lanketaren zeregina DILANa egiteko proposatutako irakasgai bakoitzeko jardueretatik abiatuta egingo da, eta horretarako izendatutako irakasle tutore batek lanari buruzko orientazioa eskainiko du, eta haren jarraipena egingo du.

ASTEA	GELAKO LANA	BERTARATU GABEKO LANA	EMAITZA
16	DILANaren aurkezpen orokorra. Moduluaren koordinatzailea.		DILANaren koadernoak.
17	DILANa aurkeztea irakasgai bakoitzean.		
18	Taldea osatzea. Kideen gehienezko kopurua: 3/4 DILANareb xede arloa hautatzea.		Taldeko kideen fitxa. Arloa definitzea.
19		Tutorea esleitzea.	
20		Hiru zentroak eta eskaini beharreko zerbitzuak zehaztea.	
21		Hautatutako arloari dagozkion benetako hiru zerbitzu deskribatzea.	Hiru deskribapenak aurkeztea tutoreari.
22		Hautazkoen parte hartzearen koadroa egitea.	
23	DILANari hautazkoek egindako ekarpenei buruzko lehenengo hurbilketa.		Hautazkoen koadroa eta ekarpenak aurkeztea tutoreari
24		Proposatu behar den zerbitzuaren definizioa	
25		Taldearen proposamenean aurrera egitea.	
26	Taldearen proposamenean aurrera egitea.	Taldearen proposamenean aurrera egitea.	DILANaren zirriborroa aurkeztea tutoreari
27		Taldearen proposamenean aurrera egitea.	
28	DILANari hautazkoek egindako ekarpenak berrikustea.	Taldearen proposamenean aurrera egitea.	
29	DILAN lana "pdf" formatuan entregatzea.		DILAN txostena.
30	DILANaren aurkezpen publikoa.		

EGUTEGIA

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
16	Urtarrilak 24	25	26	27	28
17	Urtarrilak 31	Otsailak 1	2	3	4
18	Otsailak 7	8	9	10	11
19	Otsailak 14	15	16	17	18
20	Otsailak 21	22	23	24	25
21	Otsailak 28	Martxoak 1	2	3	4
22	Martxoak 7	8	9	10	11
23	Martxoak 14	15	16	17	18
24	Martxoak 21	22	23	24	25
25	Martxoak 28	29	30	31	Apirilak 1
26	Apirilak 4	5	6	7	8
27	Apirilak 11	12	13	14	15
Udaberriko oporrak Apirilak 14tik 24ra					
28	Apirilak 25	26	27	28	29
29	Maiatzak 2	3	4	5	6
30	Maiatzak 9	10	11	12	13

**markatutako egunetan irakasgai bakoitzari dagokion saio praktikoan DILANa landuko da.*

- **Urtarrilak 24-28ko astea:** DILANaren aurkezpen orokorra.
- **Otsailak 11:** Taldeko kideen fitxa eta arloaren zehaztea entregatzea moduluko koordinatzaileari (Lorena Revuelta).
- **Otsailak 18:** Tutorearen esleipena.
- **Martxoak 4:** zentro/[zerbitzuen](#) deskribapenak entregatzea tutoreari.
- **Martxoak 18:** Hautazkoen koadroa eta ekarpenak entregatzea tutoreari.
- **Apirilak 13:** DILANaren zirriborroa entregatzea tutoreari
- **Maiatzak 6:** DILANaren txostena (pdf.) entregatzea tutoreari.
- **Maiatzak 9-13ko astea:** Ikasleen aurkezpena.

■ TUTORETZA

Talde bakoitzak bere tutorea izango du. Aipatutako egutegiaren arabera antolatuko dute lana. Halaber, gainerako ikaskideen artean DILAN bakoitzak lortutako kalifikazioak jasotzeaz eta banatzeaz arduratuko dira.

■ TXOSTENAREN EGITURA

DILANaren amaierako txostenak 17-20 orri izango ditu, eta atal hauek edukiko ditu:

- Azala. Honako hauek agertuko dira (or. 1):
 - Lanaren izenburua.
 - Taldekideen izen-abizenak, ordena alfabetikoaren arabera.
 - Tutorearen izena.
 - Lana entregatzen den eguneko data.
 - Ikasten ari diren gradua: Pedagogiako Gradua.

- Modulu zenbakia: VI. modulua.
- Aurkibidea, atal bakoitza zer orrialdetan dagoen adieraziz (or. 1).
- Lanaren sarrera, hautatutako arlo pedagogikoak testuinguruan kokatuz; hautaketaren arrazoiak (arlo pedagogikoenak) (or. 1).
- Hiru zerbitzuren deskribapena (3 or.).
- Hautazkoen koadroa (or. 1).
- Irakasgaiak egindako ekarpenen deskribapena: Practicum + hautazkoak (Irakasgai bakoitzeko or. 1).
- Taldearen zerbitzuaren proposamena (5 or.).
- DILANaren ikaskuntzen sintesia (autoebaluazioa) (or. 1).
- Erabilitako bibliografia edo/eta webgrafia (or. 1).
- Taldeko saioen akten laburpen-taula.

Aurkezpen-arauak:

- Marjinak: 2,5 behekoa, goikoa, ezkerrekoa eta eskuinekoa. Lerroartea: arrunta.
- Letra tipoa: Arial 12
- Bibliografia eta webgrafia APAREN arauen arabera (zazpigarren edizioa).

■ EBALUAZIOA

○ TXOSTENAREN ENTREGATZEA

2022ko **maiatzaren 6rako** talde guztiek bidali beharko diote dagokion tutoreari DILAN posta elektronikoz, "pdf" formatuan; era berean, tutorea lana VI. moduluko irakasle guztiei bidaltzeaz arduratuko da, baita praktiketako tutoreari ere.

○ EBALUAZIO-ARAUAK

1. DILANa prestakuntzako alde aurreko baldintza da, Graduako araudi orokorra kontuan hartuta DILANak ebaluazioan duen garrantziari dagokionez.
2. DILANaren nota taldekoa izango da, eta lauhilekoko azken eskola-egunean argitaratuko da dagokion oholean.
3. DILANaren nota VI. moduluko irakasgai bakoitzaren % 20 izango da, baita practicum irakasgaiarena ere. Hau da, DILANaren taldeko lanak gehienez ere 2 puntuko kalifikazioa lortuko du irakasgai bakoitzean: % 75 egindako dokumentuagatik eta % 25 gelan aurkezteagatik.
4. DILANa adierazitako datetan entregatu eta aurkeztubeharko da.
5. Dokumentu idatzia eta aurkezpena ebaluatuko dira.
6. DILANaren azken kalifikazioa "ez aurkeztua" edo 0 eta 2 arteko kalifikazioa izan daiteke.
7. Ebaluazio-irizpideek moduluko gaitasunen garapenari erantzungo diote.
8. Baliteke DILANa gainditzea eta irakasgairen bat gainditu gabe geratzea.
9. DILANa entregatu ezean, ez da kalifikaziorik lortuko irakasgaietan.
10. Ikasleak eskubidea du ikasgai batean/batzuetan ebaluazio jarrairi uko egiteko, horrela adierazten badio idatziz ikasgaiko irakasleari lauhilabetearen lehen 9 asteetan. Horrelakoetan, irakasleak sinatu, eta azken ebaluaziorako eskubidea luke, eta irakasleari galdetu beharko dio zernolako izango den azken ebaluazioko proba hori.

11. Moduluan soilik ikasgai bat edo bitan matrikulatutakoak ez du DILANik egin behar.
12. Modulu berean, 3 irakasgai edo gehiagotan azken proba eskatzen duten ikasleen kasuetan, EZ dute DILANik egin behar.

o EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Egokitasuna: txostenaren edukiak aztergaia osorik eta modu koherentean eta osotasunean azalduko du. Hala, txostenaren irakurketa aztergaiak eragindako hasierako galderaren ondo landutako erantzuna izango da.
- Praktika profesionalaren esparruak modu kritikoan eta gogoetatsuan aztertzea.
- Hautatutako esparruan garatutako programak, planak, baliabideak, estrategiak eta abar deskribatzea.
- Informazioa antolatzea. Emandako informazioak ondo antolatuta egon behar du, dokumentu honetan adierazitako egiturari jarraituz.
- Proposamena txertatzea eta justifikatzea. Moduluan egindako irakasgaietako ikaskuntzetatik abiatuta eraikitako ekarpenak barne hartu beharko ditu.
- Idatzia adierazgarria eta zuzena izango da alderdi formalari dagokionez (ortografia, aipuak, bibliografia-erreferentziak...) baita testuaren kohesioari eta koherentziari dagokienez ere.
- Autoebaluazioa. Autoebaluazioan, ikaskuntza-prozesuari berari nahiz hobetzeko lortutako ondorioei buruz egindako gogoeten kalitatea balioetsiko da.
- Azken ebaluazioak gai bakoitzari dagokion alderdiaren oniritzia izan behar du.

o AURKEZPENA

DILANa **maiatzaren 9-13ko astean** aurkeztuko da. Talde guztiek ikasgelan aurkeztu beharko dute DILANa; horretarako, talde bakoitzak 15 minutu izango ditu gutxi gorabehera. Aurkezpen horretara talde guztiek eta taldekide guztiek joan beharko dute.

Aparteko zeinahi egoera epaimahaiak aztertuko du. Taldeko kide bakoitzak gai izan beharko du DILANaren edozein zati aurkezteko eta defendatzeko.

Aurkezpena egiteko ordua eta lekua behar besteko aurrerapenarekin argitaratuko da. Egun horretan, ohiko eskolak bertan behera geratuko dira.

Aurkezpenean gutxienez bi ebaluatzaile egongo dira:

- a. Tutorea.
- b. Aurkeztuko den DILANaren esparrua ezagutzen duen irakasle bat.

Moduluko irakasle eta ikasle guztiak gonbidatuko dira defentsara.

Honako hauek egindako dokumentua: Miren Aguirregoitia, Jon Altuna, Rosa María Arburua, Yon Berastegui, Joana Garmendia, Iker Pérez, Iñaki Pikabea eta Lorena Revuelta